

6. Egoeren esleipen hobezina lortzeko metodoak

1)

a) Zutabe bakoitzean ondorengo egoeretakako notazio berdina dituzten egoeren taularen errenkada guztiak aztertu behar dira. Errenkada hauek ondoz-ondoko esleipena izan behar dute. Posible izatekotan, errenkada hauetan dauden ondorengo egoerei saiatuko gara ondoz-ondoko esleipenak ematen 2) araua jarraituz

b) Ondorengo egoeren notazio bera, baina zutabe ezberdinetan dituzten errenkadak aztertzen dira. Ondorengo egoeren notazioek ondoz-ondoko esleipenak jaso ahal badituzte, ondoz-ondoko esleipena emango zaie.

c) Zutabe bakar batzuetan, ondorengo egoera berdina duten errenkadetako egoerei ondoz-ondoko esleipena emango zaie. Lehentasuna izango dute, zutabe kopuru berdina gehiago duten errenkadek.

2) Errenkada bat hartuta, ondorengo egoeren notazioek ondoz-ondoko esleipena izango dute.

3) Esleipenak, irteerako mapak sinplifika daitezzen egin behar dira.

	0	1	
a	a	c	00
c	a	b	01
d	d	d	11
b	a	d	10

	0	1	
a	a	c	00
c	b	c	01
b	d	c	11
d	a	c	10